

DROGETEN

LIJURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 271. zenbakia. 2018ko urria



**San Martin
Azokara
begira**



CLÍNICA · KLINIKA

Odontologia | Fisioterapia |

Hortz inplanteak ▼

Hortzetako estetika ▼

Ortodontzia ▼

Umeak ▼

Odontologia orokorra ▼

Kirol fisioterapia ▶

Traumatologia ▶

Elikadura ▶

Soinketa hipopresiboa ▶

Amatasuna ▶

Uroginekologia ▶



Gipuzkoa etorb. 5 · 48260 Ermua - Bizkaia

943 578 617 / 655 715 856 / 615 793 717

info@irazuklinika.com

www.irazuklinika.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amara Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Jon Ander Lerin.

LAGUNTZAILEAK:

Txabi Arnal,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Udal Liburutegia
eta Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Anaitasuna Ikastola,
Ermuko Udala,
Estibalitz González,
Aitor Hernández,
Valentín Mugarza,
Beñat Pildain,
Dorleta Vidal
eta Irati Yarza.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ainhoa Garitagoitia
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Erronda kantua

Kalekua

Bazabiz zu "Kalekua"
beti umore onekua
gizon kondiziñokua.
Makiñak saltzen
hortxe zabiltzaz
kantsaurik asko burua,
irabazitzen dirua
ta engaiñatutzen mundua...
hori da bizimodua!
Juaten zera ferixara,
handik gero kerizara,
irabazirikan bada.
Edo bestela etorten zera
noble ta zuzen etxera
ta orduan juaten zera
afaldu barik ohera...
burua freskatutzera!



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Irati Yarza (Txile)	BOTEPRONTOAN..... 15 Yoli Carmona
ELKARRIZKETA5-7 Juan Carlos Abascal	ERREPORTAJEA..... 16-17 Anaitasuna Ikastolak 50 urte bete ditu
MALLABIAN ZER?8-9 Beñat Pildain	IRITZIA 18 Etorkinak bezalakoak ez diren etorkinak
MOTZEAN 10 Robotika Txapelketa Ermuan	ZORION-AGURRAK 19 Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN 11 Egitaraua orduz ordu	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
EUSKARALDIA 12-14 Izen-emate epea zabalik	SAREAN GALDEZKA21 Saihesbidearekin, trafikoa gutxitu da?
	AZAROKO AGENDA ...22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Irati Yarza

Santiagoon (Txile) bizi da Irati Yarza ermuarra abuztuaren hasieratik. Esperientzia berriak bizitzeko nahiak bultzatuta egin zuen jauzia Atlantikoaren beste aldera. Dena den, batzuetan, Euskal Herriko mugak zeharkatu ez balitu bezala sentitzen da.

- Kostatu zitzaizun Txilera joateko erabakia hartzea?

Ez, erabaki erraza izan zen. Unibertsitateak aukera ematen du azken 2 urteak kanpoan burutzeko, eta nik nahiko argi neukan Ermutik irten nahi nuela. Esperientzia hau bizi nahi nuen, eta uste dut oso baliagarria izango dela, ez bakarrik ikasketen arloan baita maila pertsonalean ere. Etxetik kanpo norberak egin behar du dena, eta autosufiziente izaten ikasteko modurik aproposena da.

- Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Banekien Santiago hiri handia zela (7 milioi biztanle ditu), eta horrek beldur pixka bat ematen zidan. Azken finean Ermutik irten eta zuzenean halako hiri handira salto egitea bitxia da. Eta egia da kontaminazio handia

eta jende asko dagoela, baina aldi berean denetik topatu dezakezu hemen, eta zentrora zoazenean ez dakizu Santiagoon zauden edo Bilbo erdian. Nahiko antzerakoa da zentsu horretan.

- Zerk deitu dizu arreta?

Zenbat euskaldun dauden! Banekien hemen euskaldun asko bizi zirela, baina hala ere harritu nau. Abizen euskaldun asko daude, kale askok dituzte izen euskaldunak... *Etxeberria* adibidez, han beste daude hemen! Bolibian eta Perun bidaiatzen egon naizenean ere, jatorri euskalduneko jende dezentetopatu dut. Horietarik batzuek badakite zein den euren abizenen jatorria; beste batzuek ez, ordea.

- Ondo moldatzen zara bertako gaztelerarekin?

Oso zaila egiten da batzuetan ulertzea, horrenbeste jerga dute...! Lehenengo



Irati Yarza Boliviako Uyuniko gatzagan

egunetan bi bider esan behar zizkidaten gauzak. Bizkor ari badira, ezinezkoa da! Klasean ere kostatu egiten da irakasleari jarraitzea, baina ikasleren batek zerbait galdetuz gero, akabo!

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Uste dut oraindik ez dudala egun arruntik izan! Heldu nintzenean etxea topatu nuen, antolatu, eta Peru eta Bolibia ezagutzera joan nintzen lagun batekin. Buelatu ginenean, hemengo jaiak izan ziren. Ostean, Argentinan astebete eman dugu. Leku berriak ezagutu nahi

ditut, eta ez egonean egon. Valparaíso ere ordu t'erdira dago autobusean, eta oso polita da. Hara ere hainbat irteera egingo ditut.

- Zer moduz Unibertsitatean?

Duela gutxi hasi gara klaseekin, goiz eta arratsaldean, eta oso itxura ona du. Gainera, bizitza handia dago eta jendeak eguna ematen du bertan. Tabernak daude, belarra, parkea, museoak...

- Ermura bueltatuko zara?

Bai. Otsailean bukatuko dut sei hileko hau, eta etxera bueltatuko naiz.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA

1968tik Ermua euskalduntzen



Argazkia: Ermuko Udala.

Juan Carlos Abascal, Ermuko alkatea:

“Lehenespen-ariketa da politika”

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua da, eta Promosa sozietate publikoaren arduradun ekonomikoa eta zuzendari-gerentea izan da 12 urtez. Juan Carlos Abascal (Eibar, 1974) Ermuko alkatea da ekainaren 29az geroztik, eta bere agintaldiaren lehen 100 egunak bete diren honetan berarekin bildu gara. Aitortu du erronka handietan murgildurik dagoela herria, eta erronka horiek aurrera ateratzeko ahalmena eta jarrera duela. Bide honetan ez da bakarrik arituko: Udaleko langileen inplikazioa bultzatzeko asmoa du, baita biztanleen parte-hartzea sustatzeko eta beste alderdiekin akordioetara heltzeko ere.

- Zure agintaldiaren lehen 100 egunak bete berri dira, baina zenbat denbora daramazu politikan?

Egia esan, azken hiru urteak bakarrik. Beti sinistu izan dut politikan, gauzak eraldatzeko tresna gisa, baina hala ere, ez naiz sekula esparru honetan aritu. Ez ni ezta nire familia ere.

- Eta zer dela-eta egin duzu politikara jauzia?

Erronka handietan murgildurik dago Ermua: zuntz optikoarekin zerikusia dutenak, enpleguarekin, Izarra Centerrekin... eta nik proiektu horietan ukonoz ukondo egin dut lan urteetan Carlos Totorikarekin. Hori dela-eta, aurrera ateratzeko ahalmenarekin ikusten dut nire burua. Eta jarrerarekin ere, noski! Uste dut Ermuko Udala garatzen ari den estrategia zuzena dela, eta horregatik animatu nintzen berau bultzatzera. Gauza publikoen balioan eta besteen ongizaterako ekarpenetan sinisten dut, horregatik izan nintzen urte askotan San Lorentzoko aisialdi taldeko begiralea, eta horregatik ezagutzen naute askok.

- Carlos Totorika 27 urtez izan da Ermuko alkatea, erronka handia da haren eskutik lekukoa hartzea?

Badakit oso zaila izango dela. Haren figurak izan duen garrantziaren jakitun naiz, eta izan duen errekonozimenduarena. Urte lu-

zez, Carlosengandik gauza asko ikasteko zortea izan dut, onerako zein txarrerako. Alde batetik, erakundeak ezagutzen dit; bestetik, badakit zeri egin beharko diodan aurre, eta horrek beldur eta ziurgabetasunak sortzen ditu. Hala ere, erronkazalea izan naiz beti, eta uste dut marka guztiak hautsi eta hobetu daitezkeela. Badakit konparazio asko egingo direla, baina ez nau batere kezkatzen: gauzak ahalik eta hoberen egiteko nago hemen, eta ikasteko.

- Aholku edo jarraibiderik eman dizu Totorikak?

Berari ondo etorri izan zaizkion gomendioak eman dizkit. Tartean, pazientzia handia izatea. Eskuarlean dugun erronka handienetakoa da antolamendu aldaketa, ez bakarrik erakunde publikoetan, baizik eta pribatuetan ere: langileak nola inplikatu, nola lortu gustura lan egitea, ekarpenak egitea, haien iritzia kontuan izatea... *Agindu, kontrolatu eta manatu* estrukturalak ez du funtzionatzen jada. Baina horrelako aldaketa batek beldurra ematen du, eta pazientzia handia eskatzen du. Halaber, zintzotasuna eta prestutasuna lehen mailako baloreak direla transmititu dit Carlosek. Ikasita nentorren, izan ere ezinbestekoak dira bidezko gizartea eraikitzeko, eta hala transmititu



diet nik langileei ere. Eta horrez gain, berarengandik ikasi dut arazoei aurre egin behar zaiela: usteltzen utziz gero, arazo handiagoak bilakatzen dira oro har. Horregatik da hain garrantzitsua erabakiak hartzea.

- Erabaki horiek kritikak ekar ditzaketan arren...

Bai, hori ere ikasteko aukera izan dut. Badakit nire erabakiek ez dituztela biztanle guztiak aseko, aldekoak eta kontrakoak egongo direla. Izan ere, oso argi daukat lehenespen-ariketa dela politika. Ezin zaie baiezkoa eman biztanleen proposamen guztiei, gezurretan ibiltzea delako: dirua proiektu batean ipintzen baduzu, beste proiektu bati kendu behar diozu. Etxe eta enpresa guztietan gertatzen den bezala, politikan ere baliabideak lehenetsi behar dira. Eta lehenetsun-emate hori benetan zaila da; horrek behartzen gaitu askotan ezetz esatera. Baina uste dut, politikan ere, ezetz esaten ikasi behar dugula.

- Eta zeintzuk dira lehentziko dituzun proiektuak?

Lehen aipatu dudan antolamendu aldaketa oso proiektu garrantzitsua da. Boto gutxi gureganatuko ditugu honekin, epe laburrean ez direlako haren eraginak ikusiko, baina eraginkorragoak eta efikazagoak bihurtuko gaitu. Beldurrak kendu eta lehiakortasunaz hitz egiten hasi behar gara, taldeko lanez, proiektuko lanez, ezagutzak partekatzeaz... Beste alde batetik, zuntz optikoak gure proiektu kutuna izaten jarraitzen du. Dagoeneko ia-ia irabaziak ematen ari da, baina horren xedea ez zen ekonomikoa bakarrik. Sare horrek zerbitzu publikoen efizientzia hobetzea ahalbidetuko du: argien intentsitatea kontrolatu, bideozaintza, trafikoaren kontrola... Bestetik, gure inguruko enpresei euskarri teknologiko egokia bermatzen die eta enpresak erakartzen ditu. Azken puntu horrek, pisu handiko beste proiektu batera eramaten gaitu: Iza-

“Nire erabakiek ez dituzte biztanle guztiak aseko”



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

rra Centre eraikiner. Izan ere, teknologia berriekin zetikuzia duten enpresak era-karri eta enplegua sortzeko azpiegitura ezin hobea da.

- Eta hirigintza arloan, esaterako, zein proiektu nabarmenduko zenituzke?

Biztanleei zuzendutako hiria sortzeko asmoa dugu; ez kotxeei, orain arte gertatu den bezala. Horretarako koexistentzia kaleak sortuko ditugu eta bide ziklableak, besteak beste. Aipatzekoa da ere Santa Ana, San Roke eta San Isidro kaleetako plan berezia: espazio publikoa lagako diegu bertako peorei, igogailuak eraiki ditzaten. Anbulatoriora heltzeko ere igogailua eraikiko da. Geltokiko proiektua ere nabarmenduko nuke, eragina izango duelako ermuarron ongizatean hainbat esparrutan.

- Zer nolako jarrera izango duzu biztanleekiko?

Duela gutxi, Europako Kontseiluaren Gobernamenduaren Bikaintasunagatik Europako Zigilua lortu genuen. Euskadiko 5 udalek bakarrik jaso dugu zigilu ho-

ri, eta Europako 200 udalek. Demokrazia partizipatiboan sinisten dut, baina biztanleen parte-hartzearen arloan, esango nuke esperimendazio fasean gaudela. Hasi gara galdeketa egiten, eta jendea gero eta gehiago inplikatzeko nahi dugu, baina horretarako gauzak ondo egin behar dira: ahalik eta informazio zabalena eskaini behar da, erabakia loteslea izango den zehaztu eta aurrekontuak aurkeztu, besteak beste. Esaterako, plazan ipiniko den karparen galdeketa loteslea izango da. Eta erabakia behar bezala hartzeko, aukera ezberdinak aurkeztuko dira, bakoitzaren alde on eta txarrekin.

- Bizilagunek prozesu horietan parte hartzen dute?

Naturala denez, galdeketa proiektuak norberarekin harremana duenean, orduan erantzuten du gehien jendeak. Beste batzuetan, gure esku uzten dute erabakia. Baina galdeketez gain, badaude parte hartzeko beste modu batzuk ere: Umeen

“Ermuarrei zuzendutako hiria eraikiko dugu”

Kontseilua proiektu zoragarria da, Pertsona Nagusien Kontseilua... Horren harira esan behar dut gazteak gureganatzeko arazoak ditugula. Gaur egun tresna asko ditugu gazteenganaino heltzeko, eta sareen bitartez ere parte hartu daiteke, baina nire ustez, parte-hartzea “Atsegin dut” botoian sartzeta baino gehiago da (eta hori ere oso ondo dago, e!).

- Nolako harremana daukazu Udalbatzarreko beste talde politikoekin?

Gaur egun lehen baino alderdi gehiago daude, eta errealitate berri honek akordioak lortzera behartzen gaitu guztiok. Negoziatu behar da, eta hori ez da erraza. Ezberdin pentsatzen duenarekin akordioa lortzeko, norberaren asmoen zati bati uko egin behar zaio. Guk horretarako ahalmena badugu.

- Saihesbidea eta urgentzien itxiera biztanle guztien ahotan dauden gaiak dira. Zein da zure balorazioa?

Saihesbidea lortzeko ahalgin handiak egin ditugu, eta lehen fase honekin alde ikaragarria igartzen da gure errepideetan. Hala ere, industrialdeak lotuko dituen bigarren fasea ezinbestekoa da trafikoa astuna kentzeko. Urgentzietan dagokienez, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzak dute eskumena, eta zerbitzuaren itxiera erabaki-

ta zegoen. Hainbat alkate-
ren presioari esker, 00:00ak arte zabalik egotea lortu dugu. 00:00etatik 08:00ak arte lanegunetan (09:00ak arte jaiegunetan) Eibarko Ospitalera joan beharko da. Ospital horrek abantailak ekarriko ditu zenbait esparrutan, esaterako kontsulta batzuk Mendarotik Eibarrera aldatuko direlako.

- Euskaraldia gertu dago. Zer moduz moldatzen zara euskaraz?

Arantza bat daukat euskara eta ingelesarekin. Euskararekin oso berandu hasi nintzen, OHOKo 4. edo 5. mailan, zoritxarrez. Hizkuntza Eskola Ofizialean ikasi nuen gero nire kabuz, eta 4. mailako idatzizkoa gainditu nuen. Gero bat-batean Promosan sartu nintzen, lanez gainezka nengoen, eta alde batera utzi behar izan nuen. Ondo ulertzen ditut euskara zein ingelesa, baina hitz egiterako orduan ez daukat segurtasunik. Politikan, gainera, oso garrantzitsuak dira ñabardurak eta hitz tekniko asko erabili behar dira, eta ez dut nire burua ikusten euskaraz hitz egiten inondik inora. Lan hau lagatzen dudanean, ez dut baztertu ikasten hastea. Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zait, gure lurraldeko ezaugarria delako, eta jendea ikastera animatzen dut. Bai euskara eta bai ingelesa.

Dorleta Vidal



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELLETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK
PROBLEMU 3-943170563
ERMUA

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Beñat Pildain, WRC2 rallyetako ingeniaria:

“Kotxe on bat euki ezien, ez die emaitza onak lortzen”

Britania Handiko ipar mendebaldean bizi da Beñat Pildain mallabitarra, Eskoziako mugatik hurrar, eta ezohiko lana dauka: WRC2 rallyetako kotxeak prestatzen ditu. Orain dela 4 urte Oxfordera joan zen Motorsporteko master bat ikastera urtebeterako, eta han topatu zuen bere lekua. Berak prestatutako Ford Fiesta R5ak Britania Handiko rally txapelketa irabazi berri du, Matt Edwards pilotuarekin.

- Non egiten duzu lan?

Ford-ek babestutako M-Sport World Rally taldien. Iez munduko rallyxetako txapelkete irabazi genduen Sebastian Ogier pilotuakin, eta Europako zein Britania Handiko txapelketak be bai. Aurten Britania Haundiko txapelkete irabazi dogu, eta munduko txapelkete barrido irabazteko aukerak daukaguz.

- Zein mailatan aritzen zara?

World Rally Championship2 (WRC2) mailan nabil Ford Fiesta R5 rallyxetako kotxiakin. Maila goreneko kotxiakin konparau ezkerro (WRC) potentzixa gitxiauko kotxiak die, elektronika aldetik laguntza gitxiu daukie eta aerodinamikoki efektu gitxiu. Oso maila egokixe da pilotuentzat esperientzixie hartu eta gero WRC mailara salto egitteko.

- Zein lan egiten duzu M-Sport taldean?

Nire lana rallyxetako kotxie pilotuan gustuetara jar-

rtzie da, ahal dan eta bixkorrena ixeteko. Kotxien reglajiek aldatzen die (motor, suspensiño, diferentzial...) eta datuek analizau, jakittekoi ia arazoiak dauen (kotxeko tenperaturie, presiño eta elektronika sistemak). Horretaz aparte, enpresan rally kotxiak diseñau eta montau egitten die bezeruei (rally talde pribatuei) saltzeko.

- Nola prestatzen dituzue lasterketak?

Rally batera juen aurretik rallyko arauak irakurri biher ixeten die jakittekoi zenbat tramo dauazan, zer luzera, gabaz edo egunez, lurretan, asfaltuen edo edurretan ixengo dan... Ostien pilotuakin berba egitten da rally aurreko testien kotxien ze aldaketa egingo dien zehazteko (suspensiño, diferentzial, errubera,...). Testien pilotue kotxiakin gustora sentitzen dan reglajiek topau ostien, berifikaziñuek pasatzen die, kotxiak rallyko arauak betetzen dittule konprobatzeko. Behin rallyxe



hasitte, estratejixa bat jarraitzen da tramo bakotxeko kondiziñuek eta eguraldixe kontuen hartute.

- Zenbat lagun aritzen dira rally egunetan?

80 pertsona inguru mobiltzen gara. Kotxe bakotxien 4 mekaniko eta pilotuan ingeniari bat egoten die. Hortaz aparte motor ingeniariak be eukitten doguz, errubetan espezializateko ingeniariak, kazetarixekin kontaktuen egoten dienak eta harreraz arduratzen dienak.

- **Aurten, zuk prestatu duzun Ford Fiesta R5ek Britania Handiko Rallya irabazi du, Matt Edwards pilotuarekin. Iaz, Keith Croninek irabazi zuen zure**

kotxearekin baita ere. Zein pisu du pilotuaren abileziak eta zein kotxearen ezaugarriek?

Pilotuan abilezia oso garrantzitsue da, baña kotxe on bat euki ezien ez die emaitza onak lortzen.

- Asko bidaiatzen duzu?

Bai, munduko txapelketa rallyxetara juteko aukerie be auki dot: Monte-Carlo, Finlandia, Kataluña, Britania Handia eta aurten Australiara be bai.

- Zein da zure helburua kotxeen esparruan?

Ahalik eta gehien ikesi, esperientzixie hartu eta egunen baten gorengo mailako WRC batekin lan egittie.

Dorleta Vidal

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925

ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

ONDAREAREN JARDUNALDIAK EGINGO DIRA LEHEN ALDIZ MALLABIAN

Sasoi guztietako emakumeek kultura unibertsalera egindako ekarpena da aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldien gai ardatza. Urtero eta urrian zehar herriz herri antolatzen diren hitzaldi, erakustaldi edota bisita gidatu multzo anitzean, Mallabiak estreinakoz hartuko du parte. Urriaren 27rako programaturako ekintzan, Ametzaga jauregia eta Jasokunde parrokia bisitatzeko aukera egongo da, hain juxtu ere emakumeek ondare zibilean eta erlijio-soan izandako zeregin desberdinez berba egiten diguten herriko bi leku horietan. 673 00 59 81 telefonoan edo ejardunaldiak@gmail.com helbidean aldeztu aurretiko erreserba egitea ezinbestekoa da parte hartu ahal izateko.

PILOTALEKUAN EGINGO DA GURE BALIOAK SARIAREN BANAKETA EKITALDIA

Julen Zabaleta marrazkilari elgoibartarrak jasoko du aurtengo Gure Balioak Saria, "bere legatu historiko-artistiko garrantzitsuarengatik". Antolatzailea den Debegesa Garapen Agentziak Mallabia I. Pilotalekua aukeratu du sari banaketa ekitaldirako, eta Mallabiko Udalaren eta DanobatGroup enpresaren laguntza izango du. Urriaren 25ean, ostegunean, burutuko da ekitaldia, 19:00etan hasita. Sari horren helburua da eskualdeko gizarte balioen sustapenean nabarmendu den pertsona edo erakundea aitortzea.

ZAPATUERO EKIMENEAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Bost eta hamasei urte bitarteko mallabitarrei zuzendutako aisialdi-proposamena da ZapatuEro. Jolas kooperatiboak, tailerrak, txangoak, eskulanak, ur-jolasak, dantzak, ginkanak, irteerak, zinea, herri-kirolak eta bizikleta-ibilaldiak egingo dira besteak beste 2018/2019ko edizio honetan, eta horren helburua da "herriko ume eta gazteekin eskaintza hezitzaileez gozatzea". Parte hartu nahi dutenek azaroaren 7a baino lehen eman beharko dute izena Kultur Etxean.

Estibalitz González eta Dorleta Vidal

URRIKO JAIAK

Urriaren 25a, osteguna

19:00 Gure Balioak Saria 2018, herriko frontoian. Omen-dua: Julen Zabaleta Barrenetxea marrazkilaria.

Urriaren 26a, ostirala

16:30 Tailerrak umeentzat, eskolan.

17:00 Buruhandiak, eskolako frontoian.

18:30 Txupinazoa, udaletxeko balkoitik.

19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala.

18:00-20:00 Dunbots txaranga kaleak animatzen.

20:00 Oilasko pintxoak plazan.

20:30-22:30 EZ3 taldea plazan.

22:30 Rock Brothers Duo taldea plazan.

Urriaren 27a, larunbata

9:00 Nesken frontenis txapelketa, herriko frontoian.

12:00-17:00 Mallabiko III. Arda Ferixie, probalekuan.

Pintxoak salgai Mallabiko tabernarietako eginda.

16:00 eta 18:00 Ondarearen Europako Jardunaldiak: "Emakumeak, baserriak jauregira". Ametzaga (Arana) Jauregia eta Jasokunde eliza. Bisitaldi gidatua, 16:00etan gaztelaniz eta 18:00etan euskaraz. Elkartu: Mallabiko elizan. Informazioa eta erreserbak: 673 00 59 81 telefonoan edo ejardunaldiak@gmail.com helbidean.

17:00-20:00 Txiki-txef umeentzat, parkeko aterpe berrian.

Urriaren 27a, larunbata

22:30 Rock kontzertua parkean: The van, Please (U2ren tributoa), Governors eta Ze esatek!

Urriaren 28a, igandea

16:30-17:30 Tor magoa umeentzat, probalekuan.

17:30 Txokolatada, probalekuan.

17:00 Mus txapelketa, Kontzejuzarrean.



FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com



SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

MARTXAN DA XXV. JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATUR LEHIAKETA

Ermuko Udaleko Euskara Sailak antolatzen duen Juanita Ibaibarraiga lehiaketan parte hartu nahi duten gaztetxoek, azaroaren 7a baino lehen idatzi beharko dituzte euren lanak. Gaia librea da eta parte hartzaileek ipuin, narrazio edo erreportaje bat aurkeztu beharko dute. Lan hauek ikastetxean bertan utzi beharko dituzte, Udal Liburutegian edo Lobianon, edo euskara@udalermua.net helbidera bidali. LHko 3. mailatik DBHko 4. mailara bitarteko ikasleek har dezakete parte, eta sariak 40 era 60 euro arteko erosketa txekeak izango dira. Sari-banaketa abenduaren 6an izango da.

GORABIDE ELKARTEAK BOLUNTARIOAK BEHAR DITU

Gorabide Elkartek 5 boluntario behar ditu Ermuko aisialdi talderako. Asteazken eta larunbat arratsaldetan biltzen da taldea, eta desgaitasun intelektuala duten 15 lagunez osatuta dago. Eurekin taile-rrak, mahai jokoak, txangoak, poteoak edo bisitak egingo dituzte. Parte hartzeko, nahikoa da 18 urte baino gehiago izatea. Izan ere, formazio ikastaroa jasoko dute begirale hauek. Interesa dutenek, 94 443 12 10 telefonora deitu edo tiempolibre@gorabide.com helbidera idatzi beharko dute. Boluntario hauek aukera askeko kredituak lortu ahal izango dituzte; aisialdi-jardueretako begirale titulua ateratzeko ere baliogarria da.

Ermuan burutu zen Euskadiko Hezkuntza Robotikaren Txapelketaren II. edizioa

Ehun lagun baino gehiago bildu ziren Izarra Centren "Gazte Robotika" txapelketan nola edo hala parte hartzeko asmoz (tartean parte hartzaileak, gurasoak, senideak eta ikusleak). 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak lehiatu ziren bertan, bi kategoriatan banatuta, eta hauek izan ziren irabazleak: "1 vs 1 game" kategoria: 1. saria "Ermutante" (Ermua), Martxel Carrascosa eta Nadim Gómez; 2. "Donald Trump" (Eibar), Aimar García, Julen Sanz eta Aimar Gallego, eta 3. "Flippipandi" (Deba), Ubong Urkiola eta Mikel Franco. "Kolorre kolore" kategoria: 1. saria "Kraak" (Mutriku), Aimar Álvarez eta Ainere Ibarrola, 2. "loju" (Deba), Iban Arrizabalaga, Jon Anuntzibai eta Ibai Pérez, eta 3. "Gilberto" (Eibar), Gorka Vila, Aitor Larramendi eta Iñaki Iglesias. Antolatzailerik jakinarazi dutenez, ekimen honen helburua bete da, "robotika eta programazioa gaztetxoengana modu dibertigarrian gerturatzea lortu delako, jolasaren bitartez eta talde-lanean oinarrituz".



Argazkia: Ermuko Uciola.

Euskadiko txapelduna berriro izateko nahia adierazi du Aitor Hernándezek

Ziklo-kros denboraldia hasi berri da, eta Aitor Hernández txirrindulari ermuarrak bere egutegia aurkeztu du. Hogei lasterketa baino gehiagotan parte hartuko du, Euskadin zein nazioartean. Horien artean, Euskadiko txapelketa nabarmentzen da (abenduaren 30ean, Beasainen), hala nola Espainiako txapelketa (urtarrilaren 13an, Vigon). Bi bider irabazi du azken txapelketa hori, eta 5 aldiz Euskadikoa. Azken denboraldian, 9 garaipen lortu zituen, —tartean Euskadiko Txapelketa—, eta 3. izan zen Espainiako txapelketan. Aurten marka guztiak hobetzeko nahia du.



Argazkia: Aitor Hernández

Skizopolis lana eskainiko da Kaltxangon

Azaroaren 21ean Kaltxango Euskaltegiaren eta Ermuko Berbalagunen eskutik, "Skizopolis Errezitaldi hitzperimentala" izango da Kaltxango Euskaltegian 19:00etan. Kaltxangotarren eta Berbalagun egitasmoaren arduradunaren arabera, ekitaldiak euskaltegi berriaren inaugurazioarekin eta Euskaraldiarekin du lotura, izan ere, gauza biak hurbil daude: Lehena, irailaren bukaeran izan zen; bigarrena, azaroaren 23an hasiko da. "Ermuko euskaldun guztiok daude gonbidatuta Markos Gimenoaren *performance* harrigarri zein dibertigarria ikustera. Bide batez, oraindik ikusi ez duenak, euskaltegi berria bisitatzeko aukera izango du", adierazi dute antolatzaileek.

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Bueta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

San Martin Azoka

Azaroaren 10ean Egitaraua orduz ordu

11:00etan azoka jendearentzat zabalduko da Orbe Kardinal plazan:

- Kalejira Musika Eskolako trikitilari eta txistulari gazteenkin.

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin.

- Kulkiren umeentzako jolasak eta ikastetxeetako postuak San Martin plazan.

- Ehun buruko artaldea eta astoen jaitsiera Errekaldetik Martxoaren 8a plazara.

- Abere eta hegazti erakusketa Martxoaren 8a plazan.

- Idi parek Probalekun.

- Artisauen postuak Santiago plazan eta Valdespina parkean.

11:00-14:00

- Ze pisu du aurtengo kalabazak? Apustua 1€. Saria, jasotakoaren %70a. Pisua 14:00etan argituko da. Errifak kalean salgai.

12:00

- Jantzien argazki lehiaketa 18:00ak arte. Argazkian agertu beharrekoa: pertsona edo talde bat baserritar jantziarekin. Igo argazkia @euskalbirusa #euskalbirusa. Saria: afaltzeko 100€tako txekoa.

10:00-12:30

- Euskal musika-tresnen erakusketa Lobianon. Eskolabarrik antolatua.

12:30

- Euskal dantzak plazan: Txindurri txistu eta dantza taldea.

13:00

- Herri kirolak Izelaietan: "Tubi": Iparraldeko jokoak (Euskal Herriko txapelduna), lasto altxaketa (7m.), altxaketa eta botaketa (Euskal Herriko txapelduna) eta ingudea. Karmele Gisasola: harri jasotzen eta txingetan. Fausto Mugerza: 5 metrotako alturan egurrari 2 mozketa.

13:30

- Sari banaketa: oholta gainean, erakusleho lehiaketak; norbere postuetan, azoka gunekoak.

15:30

- Babajana Merkatu Plazan: 15€ (babak, odolostea, txorixoa, saiheskia, postrea, eta kafea). Tikitak salgai Erdikokale 2-1 edo - 688 63 28 74 telefonoan.

18:00

- Erromeria Drindots taldearekin Kardinal Orbe plazan.

19:00

- Kalejira Arrasateko gaiteroekin

19:30

- Larrain-dantza

- Errifa zozketa, eta jantzi eta argazki lehiaketen ebazpena Orbe Kardinal plazan.

Laguntzaileak gara!

Solozabal estankoa, Todo a cien Idoia, Sehiga denda, Anbo-to burdindegia, Beta elektrizitatea, Irale hortz klinika, Urreta burdindegia, Maite urdaitegia, Amaia harategia, Miguel harategia, Sagardui poltsak, Kokko jantzi denda,

Silvia ileapaindegia, Spara arkitektura,

Hanigans, Lurpe, Herga, DQ, Yomi,

Txantxiku, Torrekua, Ertz, Karabixa,

Txalaparta, Sirimiri, Secretos, Da-

kota, Titanic, Moloko, Sorgin,

Infreñu, Sagarra, Caperos,

Karikato, Xagua, Men-

diola, London, Giroa,

Goien eta Zutik.



Euskal Birusak erakusleho lehiaketa antolatu du

San Martin Azoka girotzeko asmoz, erakusleho lehiaketa antolatu du aurten ere Euskal Birusa elkarteak. Eskapareatek apaintzeko, nekazaritza, abeltzaintza eta baserri giroko tresna eta jantziak erabil daitezke: azokarekin harremana duten elementuak, alegia. Epaimahaiak banan-banan aztertuko ditu parte-hartzaileen proposamenak, eta haien konposizioa, azokarekin duten lotura eta originaltasuna baloratuko ditu. Azaroaren 8an jakinaraziko dira irabazleen izenak, eta azoka egunean garaikurra jasoko dute.

San Martin Kulturala

Azaroaren 26an

- Kontzertua: Izaro. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Azaroaren 11n

- Gaztañerre eguna. Afari-merienda autogestionatua, 19:30etik aurrera Merkatu Plazan. Edariak eta gaztainak doan. Afalostean dantza solteak eta musika izango dira. Lagunekin zein familiarekin joateko aukera polita. 23:00etan bukatuko da. Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Ermuko Berbalagun praktika-egitasmoak antolatua.

Azaroaren 16an

- Bertso jaialdia: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Maddalen Arzallus, Igor Elortza eta Sebastian Lizaso. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Ermua Antzokian, 22.15ean. Sarrera: 10€. Euskal Birusa Elkarteak antolatua.

Azaroaren 17an

- Jazz Kontzertua: Lurpekariak. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean Sarrera: 8€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Azaroaren 30ean

- Antzerkia: "Txarriboda". Hika taldea. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Azaroaren 23an

- "Euskaraldia, 11 egun euskaraz". Azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

- Santa Zezilia jaialdia: Alboka Musika eskola eta Txindurri dantza taldea. 22:15ean Ermua Antzokian. Sarrera: 3€.



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



DG Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com



Ferreteria
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
 egiten ditugu

943 17 69 76
 607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
 www.ferreteriaanboto.es

BERRITZE LANAK
 ZURE ERAIKINEAN
 Ez dakizu nondik hasi?
 GURE LANTALDE TEKNIKOAK
 LAGUNDUKO DIZU

SPARA
 rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es
 info@spara.es
 943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36. 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

ERMUKO EUSKARALDIAK AHOBIZI ETA BELARRIPRESTAK NAHI DITU

Badator Euskalaldia eta Ermuko Euskaltzaleen Sarea lan eta lan ari da azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartekoak bere fruituak eman ditzan. Helburu nagusia da 11 egun horietan Ermuko euskaltzaleak ariketa sozial honen parte izatea eta sentitzea. Horregatik, antolatuko diren ekintza gehienak herritarren artean elkar-ezagutzera, komunikatzera eta euskara praktikatuzera zuzendurik egongo dira. Besteak beste, mintzodromoak, mendi-irteerak edo berbalagun taldeak gailenduko dira. Ermuan Bagara ekimenean, hiru egunez euskaraz bizitzeko erronka proposatu zuten antolatzaileek eta, izandako arrakastaren ostean (293 *ahobizi* eta *belarriprest*), horri jarraipena emango diote 11 egunez Euskalaldian. Horretarako, zabalik dago jada izen-ematea online egiteko aukera ondorengo helbidean: izenematea.euskalaldia.eus. Hala ere, Ermuan bertan eskuz izena emateko lekuak egongo dira: edozein eskola eta Lobiano Kulturgunea. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, euskalaldiaermuan.wordpress.com webgunera jo daiteke.

PRESTAKUNTZA SAIOAK EGINGO DIRA IZENA EMATEN DUTENENTZAT

Euskalaldian izena ematen dutenek aukera izango dute prestakuntza saio batzuetan parte hartzeko. Prestakuntza saioak *ahobizi* nahiz *belarriprestei* zuzendurik egongo dira. Lehen prestakuntza saioa azaroaren 17an izango da, eta modu trinkoan bi rolei zuzendua egongo da, beraz, lau orduko tailer bat izango da, 10:00etatik 14:00etara. Ondoren, azaroaren 20an, saio motzak egingo dira, ordu eta erdikoak, eta aukera egongo da goizeko edo arratsaldeko saioan izena emateko, *ahobizi* eta *belarriprest* rolen arabera banatuta. Goizeko saioa 10:30etik 13:00 arte izango da eta arratsaldeko 19:00etatik 20:30ak arte. Izena emateko, aurrez Euskalaldian izena eman behar da, eta ondoren mezua ermukoeuskaltzaleensarea@gmail.com edo euskara@udalermua.net helbideetara, edota udaletxeko Euskara Saileko bulegora hurbildu. Prestakuntza saioak doakoak izango dira.

MAHAI-INFORMATIBOAK IPINIKO DITU MALLABIKO UDALAK

Irailaren 26an egin zen Udaltzarrean, Euskalaldia burutzeari baietza eman zioten Udaleko taldeek. Hori dela-eta, egitasmo horren inguruko diptikoak banatu dira herriko buzoi guztietan. *Ahobizi* edo *belarriprest* izan nahi dutenek, Kultur Etxean eman beharko dute

11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskalaldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut? Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

BAI

EZ: Euskalaldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurtun giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko? Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

BAI

EZ: Euskalaldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoi, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

BAI **EZ**

AHOBIZI izango zara BELARRIPREST izango zara

izena, edo izenematea.euskalaldia.eus webgunera jo. Horrez gain, mahai-informatiboak ipiniko ditu Udalak plazan zenbait egunetan: urriaren 26an eta 31n, eta azaroaren 9an eta 16an (19:00etan). Bertan, informazioa jaso eta izena emateko aukera egongo da.

GOIMEK KOOPERATIBAK PARTE HARTU DU DANOBATGROUPEKO EUSKARALDIAN

Euskalaldia ekimenari ekarpena egin nahian, Danobatgroup enpresak Euskalaldi propioa egin zuen urriaren hasieran bere 7 kooperatibetan. Egun horietan, dinamikan izena eman zuten 493 lankideek *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratu, eta 5 egunez euren rola paparrean erantsitako pegatinen bidez adierazi zuten. Horietatik, 395ek *ahobizi* izatea aukeratu zuten eta 78k *belarriprest*. Goitondo Industrialdean kokatuta dagoen Goimek lantegian 21 langilek egiten dute lan, eta 14k hartu zuten parte Euskalaldian: 11 *ahobizi* eta 3 *belarriprest*. “Egun hauetako esperientzia oso positiboa izan da —adierazi dute antolatzaileek—, eta elkarren arteko hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela erakutsi du”.

esanline

+ @ + TV +

846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
esanline.es

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

YOLI CARMONA

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Gaztetako oroitzapen oso onak ditut. Uste dut oso ondo aprobetxatu nuela.

- Umetan zer izan nahi zenuen?

Kamioi-gidaria izan nahi nuen. Aita zen nire erreferentea, eta horregatik esaten nuen.

- Non egiten duzu lan?

Bizkaibusen egiten dut lan, autobusak gidatzen. Betidanik izan dut gustuko gidaritza lana.

- Emakumea izanda gogorra da? Baztertua sentitu zara noizbait?

Zorte handia izan nuela pentsatzen dut beti. Bigarren emakumea izan nintzen Bizkaibusen sartzen, eta izugarri ondo tratatu naute beti.

- Bizio bat?

Erretzea, baina denbora gutxirako, espero jaja.

- Akats bat?

Ziur nago asko ditudala, baina akatsetatik ikasten da eta nik beti egin izan dut aurrera.

- Nora joan nahiko zenuke bidaian?

Denbora luzea daramat New Yorkera joateko gogoarekin, eztei bidaian. Agian datorren urtean nire ametsa egi bihurtuko da.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Gauza asko dira egunero egin nahiko nituenak, baina konstantzia ez da nire indarguneetako bat.

Amaia Arginzoniz



Yoli Carmonak 42 urte ditu, eta lau neba-arreben artean gazteena da. Ermuan jaiotakoa da. Bi seme ditu eta bere senarrarekin, Karlitosekin, bizi da.



Bitxi-denda Tailor propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ikastola, oroitzapenez jositako 50 urte

Urriaren 15ean 50 urte bete ditu Anaitasuna Ikastolak. Jaiotzan ez, baina handik gutxira proiektura batu ziren Olatz Olaizola, Begoña Aginaga, Juncal Ansola, Maria Jesus Aranburu eta Maria Isabel Muniozguren. Erretiroa hartu arte bertan jardun zuten guztiek, eta herriko lehen eskola euskaldunaren historiaren ezinbesteko zati dira.

1 968. urtea ez zen euskararentzat besteak baino samurragoa izan. Diktadura bete-betean, Ermuko 10 bat gurasok, euren seme-alabek euskaraz ikastearen aldeko apustu ausarta egin zuten. Tartean zeuden Matilde Isasi-Isasmendi, Agurne Agirrego-mezkorta, Agustin Aranberria, Ander eta Imanol Olaizola eta Jesus Atxa.

Olatz Olaizola 1970eko irailean hasi zen andereño lanetan, Magisteritza ikasketak burutu ondoren, eta 3 urte geroago Begoña Aginagari egin zioten lan proposamena. “Niretzat oparia izan zen Ikastolan sartzeari aitortu du Begoñak —. Duela 8 urte erretiratu nintzen, 66 urterekin, baina jarraituko nuen. Oso-oso gustura egon naiz Ikastolan, beste andereño, guraso eta umeekin”.

Lau urteko 12 umez osatutako taldetxoarekin ekin zioten bideari (tartean Aitor Aja, Ikerne Zamakola, Bakarne Zuazua, Jon Arano, Arantza Idigoras, Jose Ignazio Iturriagaitia...), eta horiek

maila berri batera pasatzen zirenean, atzetik talde berria sortzen zen, zorionez. Horrek eraginda, ikasleak sartzeko gero eta leku handiagoak topatzea beharra izan zen hasieratik. Plazako etxe handiak hartu zituen lehen klaseak, bertan alokatu baitzuten lokal bat lehenengo pisuan. “Han hasi ginen — dio Olatzek —, baina zarata handia zegoen, eta ez ginen denok sartzen! Ondoko herrietako irakasleek esan ziguten elizak batzuetan lokalak laga omen zituela, eta Don Teodororengana joan nintzen, nire umeekin, haien izenak eskatzera. Lokalak utzi zizkiguten, eta umeekin batera plazan genituen mahaiak eta aulkiak ekarri nituen eta klasea atondu”. Urte asko eman zituzten bertan, eta Ikastolan bizi izan den ezbeharririk handiena ere bertan gertatu zen. Ostean, nagusienak Santa Anako lokaletara joan zirenean, Haur Hezkuntza geratu zen bertan. Baina ez zen leku bakarra izan: Salaberria Etxean, Valerion, Kanteran, San Ina-



zion, Abadeen etxeko sukaldetan eta Batzokiko Frontoian aritu ziren besteak beste. “Urte batean, irailetik abendura bitartean, 4 leku ezberdinetan egon ziren gure umeak!”, diote.

Lekuaren arazoaz gain, arazo legala ere bazuten, Ikastola ez zegoelako legalizatuta. Hori dela-eta, Teresa Murga eskola nazionalako zuzendaria zen Don Amador del Reyrengana jo zuten, hark eskolaritate-liburuak eskatzeko eta sinatzeko, umeen ikasketek balio legala izateko. “Ez gintuen begi onez ikusten, baina bere alaba nire koadrilakoa zen, eta agian horregatik mesedea egiten zigun”, dio Olatzek. Bi urte egon ziren haren menpe, eta harrezkerotik Centro Culturalaren bitartez konpontzen zituzten kontu legalak. “Centro Culturalari interesatzen zitzaion gure umeak be-

re kupoan sartzeari, ikasle kopuru minimora heldu behar zirelako”, oroitzen dute.

Agerikoa da lehen ume horien gurasoek beldurrak alde batera utzi, eta konfiantza handia ipini zutela jaioberrria zen proiektu horretan. Izan ere, “badaude irakasle batzuk euren seme-alabak bertara eraman ez zituztenak!”.

Guardia Zibila


Benetan ausardia-ariketa izan zen, sasoi hartan gaztelera baino ez zelako irakasten eskoletan. “Lotsa ematen zigun kalean euskaraz hitz egitea. Lotsa, beldurra... denetik genuen”, dio Maria Isabelek. Francoren garaia zen, eta Ikastolak antolatzen zituen bilera eta asanblada guztietara Guardia Zibila jotzen zen. Bileretan komentatu behar zutena aurretik bidali behar zioten, gidoi antzeko bat, euskaraz eta gaz-

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Drogeteniturrri, 271 zk.



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

teleraz. Inspektorea ere noizbehinka joaten zitzaien bisitan, eta egun horietan dardarka egoten ziren. “Baina baimena ematen ziguten beti! —diote bostek—. Pentsatu! Bertsolariak abestu behar zituztenak ere idatziz bidali behar izaten genizkion Guardia Zibilari! Kontua da gure estilora itzultzen genuela!”.

Hirugarren oztopoa dirua zen, materiala erosteko eta andereñoi hilero-hilero ordainketak egiteko. Eskerrak militantzia handiko garaiak izan ziren. “Gurasoak asko inplikatu ziren, eta Ermuan ere jende asko genuen aldeko. Bazeuden enpresa pribatuak ere edo norbanakoak nola edo hala laguntza ematen zigutenak”, adierazi du. Jaialdiak egiten ziren, zozketak, loteria, bertsolariak, eta udan taberna zabal-

tzen zuten: Ikastolako txurria. Bodega Serruchoko lokaletan hasieran, Txantxikun gero”.

Eta aurrera egiteko beste ateratzen zuten. Hala ere, ez zuten kontraturik, ez Gizarte Segurantzarik. “Gazteak ginen, eta ez genuen horretan pentsatzen!”, diote.

Kasualitatez-edo, andrazkoak bakarrik ibili ziren andereño gisa hasieran. 1973an sartu zen lehenengo gizona, eta hortik aurrera beste batzuk ere. “Eta hara gauzak! Centro Culturaleko ume kupa handitu zenez, irakasle batzuk ere Gizarte Segurantzari sartu gintuzten haien izenean. Eta beitu! Gu baino gerotxoago lanean hasitako gizonak gure aurretik sartu zituzten Gizarte Segurantzari. Mutilak zirelako! Guk gauza pilo bat egiten genituen, baina ez genion garran-



Argazkia: Anaitasuna Ikastolako 25. urteurreneko liburua.

tzirik ematen; mutilak, aldiz, espabilatuagoak ziren!”, oroitzen du Maria Jesusek.

Garai berria

Baina handik urte batzuetara gauzak hobetzen hasi ziren. Lehen kontratuak Juncal Ansola idazkariak eraman zituen sinatzera Durangora, 1979an: “Inazio Ziarsolok bidali ninduen kontratu pilo batekin Durangoko Enplegu Bulegora. Handik bueltan aitortu zidan ez zirela legalak eta ea trabarik ipini zidaten. Ene! Ez dira legalak eta ni bidali nauzu!”, dio barrezka.

Urte politak izan ziren, eta irribarre zabal batekin gogoratzen dituzte. “Garai hartan Ikastola *geurea* zen, gurekin batera hazi zen —diote bostek—. Pena ematen digu, jada ez delako gure Ikastola. Orain dena eginda dago, antolatuta. Umea bertan


lagatzen dute gurasoek eta gero jaso, listo! Guraso eta irakasleen arteko harremana aldatu da. Lehen askoz ere estuagoa zen, eta urtean bizpahiru afari egiten genituen! Garai ezberdinak dira. Gaurko gizarteak beste arazo batzuk ditu, guk ez genituenak, eta bestelako lanak egiteko denbora gehiago genuen”.

50 urteren gainean solasaldi luzea egin daiteke. Baina nola laburtu 12 umerekin hasi eta urtean 500 ume kudeatzea lortu duen ikastetxearen historia? Nola azaldu *cola de pescado* deritzon teknika bakunarekin prestatzen zizutela andereñoek umeen fitxak? Nola ulertu Estatu Batuetatik bidalitako gazta ematen zietela umeei? Bost emakume hauek badituzte erantzunak.

Dorleta Vidal

Argazkia: Anaitasuna Ikastolako 25. urteurreneko liburua.





PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Iberikoetan
espezialistak



Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336


943 170474



Etorkinak bezalakoak ez diren etorkinak

Ikastetxe hura bisitatzea jogan nintzen. Nire ikasle batek bertan egin nahi zuen praktikaldia, eta nik nire ikasleek praktikak burutzen dituzten eskolak ikustatu ohi ditut. Gainera, ikastetxe harekiko jakin-min handia neukan. Eskola berria zen, hiriko berriena. Lau haizetara zabalduzako publizitatea ikasita nengoen: pedagogia berritzaileena gartzan zutela aldarrikatzen zuten, alajaina! Bere izaeraz ere zerbait banekien: pribatua zen, hiriko pribatua. Eta bertara umeak ermaten zituzten familien maila soziopolitikoekonomikoaz zer esan... "Aurreiritziak, Txabi", pentsatuko du baten batek. "Hipotesiak baino ez dira", defendatuko dut nik.

Eta goiz hartan hantxe nengoen: hiriko ikastetxe berrienaren eta pribatuenaren aurrean, zuzendariaren zain. Eskolak eraikin historiko baten hegala oso bat hartzen zuen. Estalkia eta itxura garrantzi handikoak izaten dira produktua ongi saldu nahi digutenean. Eta zuzendaria agertu zen. Beso zabalik hartu ninduen (?). Diskurtsoa erabat antolatua zeukan, hamaika alditan errepikatua. Beren proiektuaz harro hitz egin zidan, lekuak eta materialak erakutsi, klase batera sartzeko aukera eman... Azkenik nire ikaslearen tutorea izango zena aurkeztu zidan: "Lehen Hezkuntzako tutorea izateaz gainera, ume etorkinen egokitzapenean laguntzen du."



Txabi Arnal

Ume etorkinak eliteko (eta barkidazue hitz hau erabiltzea) ikastetxe batean? Zerbaitek krak egin zuen nire buru barneenean. "Ume etorkinak?", harridura handienaz galdetu nion zuzendariari. "Bai, jakina!", erantzun zidan. "Estatu Batuetatik, Kanadatik eta Alemaniatik etorritako familien seme-alabak."

Eta buru barneenean krak egin zidan hori berehalaxe sendatu zitzaidan. Puzzlea osatzeko faltan nituen bi piezak erraz sartu ziren: diruduna, lehenik, zuria, ondoren.

GOMENDIOA: lagun diezaiokezu honako artikulua honen irakurketzeari Jimmy Cliff musikariaren *I'm no immigrant* abestiarekin.

“Puzzlea osatzeko faltan nituen bi piezak erraz sartu ziren”

Zer irakurri?

Peru Magdalena

Irakurketa klubeko dinamizatzailea



"Aldameneko gela Arantza eta Bixenterena zen. Ez nintzen behin ere sartu eta ikusmin handia nuen. Atean jo nuen, bi eta hiru aldiz. Isiltasuna. Zabaldu eta iluntasuna kontrako eztarririk joan zitzaidan: leihoak eta leiho-ateak itxita zeuden, usaina ez zen lehengo bera, bazuen zaharmin-dutik, egurastu gabekotik, hezetik. Hasieran desengainu txiki bat izan zen, baina ez zen hori bukatu. Norbait zegoen han. Ohean".

Bihotz handiegia
EIDER RODRIGUEZ
Susa literatura, 2017

Aurtengo Euskadi Literatur Saria irabazi berritan irakurriko dugu liburu eder eta durduzagari hau, sei narraziok osatzen duten Eider Rodriguezen azken proposamena. Bertan, egunerokoan ezagun bezain konplexu zaizkigun pertsonaiak topatuko ditugu, bizitzaren gorabeherei nola aurre egin asmatu nahian. Hau guztia Rodriguezek hain ohikoa duen idazkera eta begiratzeko modu hain berezi horrekin blaiturik.

*Irakurketa Kluba: abenduaren 3an, 19:30etik 21:00etara Lobianoko ikus-entzunezko gelan. Parte hartu nahi dutenek, izena eman beharko dute liburutegian aldezturik.

SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. © 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).

ALOKAGAI

Pisua alokagai Ermua erdialdean. Altzariz jantzia. Bi gela, egongela, komuna, trasteroa eta sukaldea. 669 20 91 83.



Irailaren 22an
Zorionak, Ariane! 6 urte jada. Muxu asko ama eta aitaren partez!



Urriaren 6an
Zorionak Irama zure 9. urtebetetzean, aitita-amama, guraso, osaba-izeko eta bereziki Aner lehen-gusuaren partez. Asko maite zaitugu.



Urriaren 19an
Zorionak Nerea!! 10 urte bete dituzu! Muxu handi bat aita eta amaren partez, muaaaa!



Azaroaren 8an
Zorionak Lucia!!! Bi urte beteko dituzu. Muxu handi bat amatxo eta aitaxoren partez. Asko maite zaitugu, sorgintxo!!!



Azaroaren 10ean
Zorionak Julene zure 5. urtebetetzean, egun honetan oso ondo pasatuko duzulakoan patxo handi-handi bat, aita, ama, Iker eta Bossen partez!!



Urriaren 28an
Zorionak Eder!! 5 urte beteko dituzu. Asko maite zaitugu. Izaro, aita eta ama!!



Urriaren 31
Zorionak Lander! Muxu pila etxekoan partez zure laugarren urtebetetzean.



Azaroaren 13an
Zorionak gure etxeko txikitxuari. 6 urte beteko dituzu! Ondo pasau ta gitxi gas-tau!! Patxo haundi bat.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: Azaroaren 14a.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTIAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLABIA 1982

1982 urtean Mallabiko eskolako umeak Sobronera (Araba) egindako bidaian ateratako argazkia. Argazkian agertzen diren batzuk kontatzen dute egun horretan askok busti-busti egin da bukatu zutela. Bertan agertzen dira: Goreti Pradera, Belén Riaño, Valentina Pradera, Goreti Txurruka, M^a Tere García, Elena Zubiaste, María Jesús Justel, Carmen Limia, Antonia Benítez, Agurtzane Aranburu, José Pradera, Miguel Ángel Vila, Iñaki Carrillo, Mari Sol Prol, Maite Leanizbarrutia, Alfredo Muñoz, Jabier Alberdi, Emilio Pradera, Jabier



Antxia, Igor Intxaurreaga, Josu Garitagoitia, Aintzane Arregi, Faustino Etxenagusia, Begoña Sánchez, María Ángeles Agudo, Nerea Azpiazu, Fidel Garitagoitia, Begoña Sánchez, Aitor Sarasua, Josefina Antxia, Itziar Barruetabeña, Begoña Alberdi, Kontxi Arriaga, Nieves Gaztelurrutia (irakaslea), Miren Txakartegi, Iñaki Eizmendi (irakaslea), Richard Diez, Cecilia Solozabal, Ana Rosario Muñoz, Arrate Carrillo, José Alberto Dorrio, Manu Riaño, Juan Luis Barruetabeña, Ismael Pradera, José Alberto Martínez, José Luis Telleria eta Jesús Mari Telleria.

ERMUA 1958



Azaroaren 2a eguzkitsu atera zen eta Santukua etxe parean senide arteko erretratua atera zien Eibarko Segundo Varela argazkilariak. Tente daude eta ezkerretik eskumara begiratuta: Nicolás Mugerza, Edurne Idigoras, M^a Luisa Mugerza, Javier Mugerza, Lorenzo Mugerza, Modesto Mugerza eta Joseba Idigoras. Erdi-erdian amama, Pantxika Buruaga, Yolanda Idigoras alboan eta Lorea Mugerza altzoan dituelarik. Lurrean jarrita daude: Conchi Ormaetxea, Garbiñe Mugerza, Josune Mugerza, Irune Mugerza, Jon Idigoras eta Sabin Mugerza.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkate 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Ermuko saihesbidearen 1. fasea bukatuta dago. Irailaren 17an inauguratu zen 1. fase honen bigarren zatia, eta horri esker 9.000 ibilgailu herriko errepideetatik aterako direla espero da. 2014an hasi ziren obrak, eta 74 milioi euroko inbertsioa eskatu dute. 4 kilometro eta 75 metroko luzera du errepide honek, eta berau eraikitzeko derrigorrezkoa izan da tunel bat eta 11 egitura nagusi egitea. Horien guztien artean aipatu behar dira AP-8 autobidearekin konektatzeko hiru zubi-bide (guztira 336 metroekin), Uretamendi Hegoaldeko biribilgunean trenbidearentzako azpiko igarobidea (86 metroko luzera duena), eta Eitza eta Oterreko zubi-bideak (bien artean 343 metro dituztenak). Bigarren faseak (industrialdeak konektatuko dituena), ez dauka datarik oraindik.



Saihesbidearen bigarren zatia inauguratu denetik, uste duzu gure herriko trafikoa gutxitu dela?

Guztira 101 bozka jaso dira inkesta honetan.


Bai %79

Ez %21



Noski nabaritzen dela. Uda baino lehen, 18:00etan kristoren pilaketak zeuden biribilgune berrian. Orain ez dago apenas kotxerik, segituan pasatzen zara.

Jon Arano



OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Zuri egokitzen den odontologia
La odontologia que se adapta a ti

SAN PELAYO
HORTEZ KLINIKAK & CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ZINEA

Hilaren 3tik 5era
Hilaren 10etik 12ra
Hilaren 17tik 19ra
Hilaren 24tik 26ra
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 1
Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 4
Hilak 11
Hilak 18
Hilak 25
 Zehaztu gabeko filmeak.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

ANTZERKIA

Hilak 9
 Antzerkia: "Crimen y telón", Ron Lalá taldearen eskutik.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15€

MUSIKA

Hilak 17
 Jazz kontzertua:
 Lurpekariak. 20:00etan.
 Lobiano Kulturgunean.
 Sarrera: 8€

Hilak 22
 Zezilia Deunaren diana.
 7:00etatik aurrera.

Hilak 22
 Zezilia Deunaren kalejira.
 19:30etik aurrera.

Hilak 23
 Zezilia Deunaren jaialdia. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 3€

UMENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 3
 Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

Hilak 17
 Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

Hilak 24
 Antzerkia: "Eurria", Markeliñe taldearen eskutik. 17:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

ERAKUSKETA

Hilaren 14tik 30era:
 Margo erakusketa:
 Manolo Oyonarte.
 18:00etatik
 20:00etara.
 Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 10
 San Martin azoka:
 hainbat ekitaldi.
 Orbe kardinalaren plazan eta inguruko guneean.
 11:00etatik aurrera.

Hilak 12
 Gaztañerre: Kalejira, afaria eta gaztainen banaketa. 19:00etan.

Hilak 16
 Bertso jaialdia:
 Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Igor Elortza, Sebastian Lizaso eta Maddalen Arzallus.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €

Hilak 17
 Magostos: Gaztainen banaketa musikarekin girotuta.
 11:00etatik aurrera.
 Galiziako Zentroan.

Hilaren 26tik 2ra
 Gaztela-Mantxako kultur astea: hainbat ekitaldi.
 Gaztela-Mantxako Zentroan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko

PRO
arraindegia



ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala


Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ERMUAN, XXIX. SAN MARTIN AZOKA



Euskal
Birusa
Elkarteak

AZAROAREN 10ean
LARUNBATA



11:00

AZOKA PLAZAN, *kalejira gaiteroekin*, kalejira trikitilari eta txistulariekin, umeentzako jolasak eta ikastetxetako postuak San Martin plazan, **ehun buruko artaldea** kaleetan barrena, abere eta hegazti erakusketa Baldespina parkean, **IDI PAREA PROBABLEKUN**, artisauak Santiago plazan, *txerri errifak salgai*, argazki lehiaketa, **EUSKAL MUSIKA TRESNIEN ERAKUSKETA LOBIANON**, euskal dantzak plazan, **herri-kirolak** Izelaietan.

13:30

Sari banaketa postuz-postu.

15:30

Babajana Merkatu Plazan.

18:00

Drindrots erromeria plazan.

19:00

KALEJIRA GAITEROEKIN.

19:30

Errifa zozketa eta larraindantza plazan.


ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



BABESLEAK



EDIFICIO

Kaltxangoikoa

ERAIKINA

- 3 logelako 26 etxebizitza
- logela guztiak bikoitzak
- Garajea eta trastelekua aukeran
- Ikuspegi zabalak dituzten terraza handiak garaieran
- Konexio bikainak

82 m²
erabilgarriak
dituzten
etxebizitzak +
terrazak
190.000€-tik
aurrera

Ermuan etxebizitza paregabeak.

Metraje handiak;
egongela guztiak
20 m² -tik gorakoak
eta logelak
10 m²-tik gorakoak



Bizkaia etorbidea 10, bajo
48260 Ermua

943 31 66 11
689 66 08 01
696 02 52 58

elkeno GROUP